

# SARRERA

---

Mundua etengabe aldatzen ari da, eta aldaketarik nabarmenetariko bat digitalizazioa da. Alde batetik, ona izan daiteke, gure eguneroko bizitzan laguntzen baitigu, hainbat aukera emanaz aisialdirako baita hezkuntzarako ere. Aldi berean, pertsonen arteko komunikazioa errazten eta hobetzen du. Hala ere, badago gizartearen zati bat bilakaera honen alde negatiboak eragiten diona. Hauek adinekoak dira, zalantzarik gabe ez direlako gai egokitzeko. Gainera, buruko desgaitasunen bat duten pertsonen hainbat arazo dauzkate gaur egungo gizartearen egokitzeko.

Gure proiektuak ikasketa zein pertsona hauen inklusioa sustatzea du helburu, haien independentzia bermatzen. Horregatik, proposatzen dugu produktu eraginkor bat, prezio eta tarifa eskuragarriekin, bezero potentzialen egoera desberdinak kontuan hartuta. Gure produktua gailu elektronikoa bat da, pantaila batez eta zenbakiak izango diren botoiez osatua. Gailu horrekin batera, gida bat egongo da. Gida hori liburu bat izango da, patroi bat baino gehiago izango dituena, eta mugikorrerako funtzio bat adieraziko du. Zer egiten ikasi nahi duten arabera, adibidez argazki bat atera, patroi bat begiratuko dute liburuan, eta, zenbaki horiek gailuan sakatuko dute.

